

ELGOIBAR - 1137. zenb. XXVI urtea - 2019-11-15



BARREN

TOKIKOM

Izotza da termometroa

Eñaut Izagirre



10 EGUNKIA
ESKARITZA ERREPETA EZINER. Inoiz ere. 14h-21h.

Erabi orain eta ez hasi ordaintzen 3000ra arte.

Hibridoak berriz



The Power to Surprise

CBE erabiliz, WLTP konbinaturik NEDC Cofim: 06-170.
CBE erabiliz, WLTP konbinaturik: 0V/0h: 110-202. Combustion konbinaturik WLTP N'100 km: 4,8-8,9.
Tasoa txikiak: kargapenari dago. Irarritutako autotan. Orai-erdi eta bir-iraberrera erabilizko bateriak. CO2ren S.A.U. Euzko Espainiako MOKER. Irarritutako erabiliz. Lehenengo naira iraberrera sartzean iraberrera kargapenari gertatzen da. Berezin partikularren erabilizko erabiliz, 2019ko azararen 14h- 21h, eta Penintsulako, Balcanteko, Ceutako eta Melillako iraberrera erabiliz. Iraberrera erabiliz, eta iraberrera berriz iraberrera erabilizko bateriak berriz iraberrera erabiliz. Iraberrera berriz iraberrera erabiliz.

NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1
Eibar. Gipuzkoa

www.naiacar.com

Tel.: 943 70 70 33

INGENIARITZA DUALA

PROZESU ETA PRODUKTU BERRIKUNTZAN
INGENIARITZA GRADU DUALA



INFORMAZIO SAIOA IMHn:

Azaroak 20, asteazkena

17:30ean



ETOR ZAITEZI!

Informazio saioetan
izena emateko:

ingeniaritza.ehu@imh.eus

943 748 264

WWW.IMH.EUS



Elgoibarko Izarraren

TONBOLA

Aurreko urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere **abenduaren 24an**, 11:00etatik aurrera, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Entrenamendu arropa



Liburuak



Ordulariak



Diru-zorroak



Imanak



Errigorako saskiak



Negurako txapelak



Motxila-poltsak



Aperitibo ontziak



Biserak

Elgoibarko Izarraren aldeko
TONBOLA

Abenduak 24,
11:00etatik 14:00etara,
Kalegoen plazan

1.000 erregalu
baino gehiago...



Estutxeak



Txanpuak



Poltsa isotermikoak

... eta opari gehiago!



Harremanetarako: barren@elgoibarkoizarra.eus edo 943 744 112

EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Jolasa gauza serioa da

Irtsi da jostailuen iragarkiek gaina hartzen diguten garaia, liluratu dituen horretan izugarriko desioa jarrita gure inguruko haurrak zerrendari bueltak ematen hasten diren garaia.

Jolasak funtzio oso garrantzitsua betetzen du haurren garapenean. Lehen haurtzaroa dugu egokitze esfortzu handieneko garaia, egunean milaka esperientzia izaten ditugu bizitzan lehen aldiz, ez dugularik bizi eta gaingindu

izanaren esperientziarik. Jaioberririk ez du gurasoa beste bat den sentipenik, gurasoarekin bat eginaz mendekotasun osoan gartzten da eta ikasten du bere erritmo fisiologikora ohitzen. Lehen hilabeteetan ez dute objektuaren konstantzia kontzientziarik: zaintzailea ez dagoenean, eurentzat desagertu egin da; ez dute existitzen jarraitzen duen kontzientziarik. "Kuku" jolasa behin eta berriro egitean sentitzen duten gozamenak horrekin du zerikusia; eurek eskuak jarri eta kentzean egoeraren kontrola hartzen duten bizipena dute. Pasiboki eta erabat mendekoa zaren bizipenetik ulertzen ez dugun egoera bat bizitzeak sortzen duen larritasuna apaltzen da jolasean egoera guk geronek

erreproduzitzean akzioaren jabe eginaz.

Honela, eskola kontestura egokitu behar direnean, irakasle izatera jolasen dira behin eta berriro, pasiboki bizi dituzten egoeren jabe eginaz jolas simbolikoaren bitartez. Horrela, enpatia gaitasuna ere lantzen dute, jolasean, aldi bakoitzean, pertsonaia ezberdina izanaz. Zenbait kontestutan gatazkak sortzean rol-playing-a erabiltzen dugun bezala bestearen lekuan jartzeko, haurrek naturalki egiten dute.

Beraz, inguruan duzun haurren batentzako oparia pentsatzen bazabiltza, pentsatu zein momentutan dagoen, zein diren bere bizitzako erronkak, eta horiei aurre egiten lagundu ahal diezaioketen elementuak eman.

"Inguruko haurren batentzako oparia pentsatzen bazabiltza, pentsatu zein momentutan dagoen, zein diren bere bizitzako erronkak"



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euzko Lehen Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENeK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
URDIA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILEAK:

MENDIARO
1963

Gipuzkoako Foru Aldundia

King-Kongeko zubiaren irisgarritasuna hobetzeko ikerketa egingo du Elgoibarko Udalak

King-Kongeko zubiaren malda murriztu, irisgarritasun legedira egokitu eta autobus geltokira iristeko bidea hobetzeko dau-den aukerak aztertzeko ikerketa egiten ari da Elgoibarko Udala, Injelan enpresaren bitartez. Urazandi eta San Frantzisko kaleen arteko lotura eta irisgarritasuna hobetu nahi dituzte, zubiak duen aldapa murriztu, egungo irisgarritasun legedira egokitu eta autobus geltokira heltzeko bideak hobetu.


Egun dagoen zubia aldatzea da Udalak eskuartean duen ideia. Egungoa kendu eta pasabide lauagoa ipintzea proposa-tzen dute, Deba ibaiaren eskuinaldea autobus geltokiarekin lotzeko. Era berean, Urazandi kalea autobus geltokiarekin modu irisgarriagoan lotu nahi dute. Horretarako, 634 errepidea gainetik pasatzen duen zubiaren zatia errepide parean dagoen geltokia-rekin lotu nahi dute igogailu batekin.

Ane Beitia alkateak esan duenez, ikerketak herritarren segur-tasuna bermatu eta ingurunearen irisgarritasuna hobetzea du hel-buru, eta bide batez, bideragarritasun ekonomiko zein tekniko



balorazioa egiteko aukera eskainiko die.

Ikerketa honek 7.693,50 euroko kostua izango du, eta "ondo bidean" ikerketen emaitzak sei aste barru jasotzea espero du Uda-lak. Proiektua idatzi eta lehen pausoak 2020an emango dituztela aurreratu dute agintariek.



Pedro Cornejo Torres

2019ko azaroaren 12an hil zen, 75 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.



I. URTEURRENA

**Manolo Alvarez
Fernandez**

2018ko azaroaren 12an hil zen,
78 urte zituela.

Zuen oroimenak indartzen gaitu.

Etxekoak

Haien oroimenez urteurreneko meza
izango da, zapatuan,
azaroaren 16an,
19:00etan, Elgoibarko Bartolome
Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



XV. URTEURRENA

**Manuel Alvarez
Balzola**

2004ko martxoaren 27an hil zen,
38 urte zituela.

Hego Euskal Herriko joera bete da gurean ere, eta EAJ izan da alderdirik bozkatuena Espainiako Kongresurako hauteskundeetan

Gobernu egonkor bat osatzeko agintarien ezinagatik, lau urtean laugarrenoz eta bigarrenoz aurtan, Espainiako Gorteetarako hauteskundeak izan genituen domekan, eta apirilean bezala, EAJ izan zen alderdirik bozkatuena gure bi herrietan, Hego Euskal Herriko irudia errepikatuta. EHBildu izan da bigarren indarra, bai Mendaron eta baita Elgoibarren ere, eta alderdi sozialista, hirugarrena (Hego Euskal Herrian gertatutakoaren batekoz bestera). Apirileko hauteskundeekin alderatuta, parte-hartzearen apaltzea izan da datu esanguratsuetako bat. Mendaron, hamar puntuan egin du behera, %73tik %63ra, eta Elgoibarren, bost puntuan. Bototan, berriz, alderdi guztiek egin dute behera Elgoibarren, PPK eta VOX eskuin muturreko alderdiak izan ezik. Elgoibarren, 280 boto eskuratu ditu PPK, apirilean baino 21 gehiago eta 83 boto bildu ditu VOXek, azkenekoetan baino 31 gehiago. Portzentajetara eramanda, %8,11 eta %60 hazi da beraz, bi alderdiok Elgoibarren jaso duten babes. Ondorengo bi tauletan dituzue emaitzak, hauteslekuz hautesleku. Emaitzak orotara hartuta, 120 diputatu lortu ditu PSOEk, 89 PPK, eta 52rekin, VOX izan da hirugarrena eta Podemos laugarrena, 35ekin. Indar abertzaleek eutsi egin diote. Martitzenean Gobernu osatzeko akordiorako oinarriak sinatu zituzten Pedro Sanchezek eta Pablo Igleasiasek.

EMAITZAK ELGOIBAR	2019 Apirila		2019 Azaroa		2019 Apirila		2019 Azaroa		2019 Apirila		2019 Azaroa		2019 Apirila		2019 Azaroa	
	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa
KULTUR ETXEA	952	935	607	581	368	309	309	262	102	108	51	15	21	28		
JUBILATUAK	193	199	89	89	67	71	48	27	15	16	8	1	4	8		
ALTZOLA	35	24	41	47	17	14	26	19	10	7	5	3	0	2		
P. MUGURUTZA	436	421	266	269	229	216	227	183	59	57	25	13	9	14		
SAN ROKE	339	332	209	203	114	103	80	70	32	35	13	6	4	8		
URAZANDI	178	169	136	138	202	179	108	66	25	34	18	2	7	15		
IMH	236	228	140	150	107	92	109	97	16	23	23	9	7	8		
GUZTIRA	2.367	2.308	1.508	1.477	1.104	984	905	724	259	260	143	49	52	83		

URTEA	ZENTSUA	EMANDAKO BOTUAK	ZURIAK	BALIOGABEAK	ABSTENTZIOA
2016	8.797	5.672	40	42	%35,52
2019.04.28	8.681	6.491	22	62	%25,23
2019.11.10	8.654	6.000	21	28	%30,67

EMAITZAK MENDARO	2019 Apirila		2019 Azaroa		2019 Apirila		2019 Azaroa		2019 Apirila		2019 Azaroa		2019 Apirila		2019 Azaroa	
	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa	2019 Apirila	2019 Azaroa
BOTOAK	406	379	225	218	191	158	152	141	30	27	9	6	5	6		

URTEA	ZENTSUA	EMANDAKO BOTUAK	ZURIAK	BALIOGABEAK	ABSTENTZIOA
2016	1.437	908	2	2	%36,81
2019.04.28	1.412	1.037	2	4	%26,50
2019.11.10	1.499	945	3	3	%37

Foru Aldundiak isuna jarri dio A8ko trafiko-zarata arintzeko panelak jartzeko eskatzen ari den mendaroko bizilagunari

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2.000 euroko isuna jarri dio Joseba Olazabali, A8 autobideko trafiko-zarata gutxitzeko Mendaron panel akustikoak jartzeko eskatzen ari den gizonari. Urriaren 21eko data du Olazabalek jaso duen gutunak eta bere protestekin bide segurtasuna arriskuan jartzea leporatzen diote bertan. Era berean, kartelak kentzeko eta "autobidearen erabiltzaileek arreta galtzea eragin dezaketen jarduerarik" ez egiteko agindu diote. Olazabalek berak egin du publiko isuna, eta adierazi du ez duela etsiko. "Kartelak jartzen hasi nintzenetik 50 bat milioi auto pasatuko ziren gure etxe aurretik eta ez dut istripu bakar bat eragin. Gure bizi-kalitatea hobetzeko ematen diegu botoa agintariei, eta Mendaroko kasuan, okerrera goaz nabarmen. Diputatuari ere esan nion haienzat albo-ondorioak garela eta gozoa jarri zen!", dio sare sozialen bidez zabaldu duen oharrean. Hainbat herritarrek babesa agertu diote eta ekinbideetan laguntzeko prest azaldu zaizkio.



III. Berdintasun Planaren ebaluazioa egiteko galdetegia zabaldu du Elgoibarko Udalak

III. Berdintasun Planaren ebaluazioa egiteko prozesu parte-hartzailea abiarazi du Udalak. Horretarako galdetegi bat zabaldu du, eta betetzera deitu ditu herritarrek (<https://labur.eus/berdintasunplanaebaluaketaelgoibar>).

2009an onartu zuen Udalak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. plana, lau urterako. Debegesaren laguntza izan zuen horretan, eta geroztik, beste bi ondu dituzte. Orain zabaldu duten galdetegiaren bidez dagoenaren ebaluazioa egin eta ondorio garbiak atera nahi dituzte, urtarilean beste lau urterakoa izango den plana osatzen hasteko. Prozesu parte-hartzaile honetan modu koordinatuan lan egingo dute udaleko langile, politikari eta herritarrek, eta Berdintasun Sailetik jakinarazi dute topaketak, elkarrizketak eta beste hainbat galdetegi egingo dituztela datozen hilabeteetan, datuak eta estatistikak berrikusi eta urte hauetan izan diren aurrerapenak neurtu eta hobetu beharreko gaiak identifikatzeko.

Medikamentuen erabilera arduratsuari buruzko hitzaldia egongo da Jubilatuen Biltokian hilaren 19an

Kontsumobide Euskal Institutuak antolatuta, medikamentuen erabilera arduratsuari buruzko hitzaldia emango dute datorren martitzenean Jubilatuen Biltokian. Olatz Hilario kontsumo hezitzailea izango da hizlaria, eta besteak beste, medikamentuak hartzerakoan kontuan hartu beharreko hainbat gomendio azalduko ditu. 16:30ean hasiko da hitzaldia. Saioa doakoa eta irekia izango da.

Bihar Eibarren egingo duten manifestaziora deitu dute jubilatuen eta pentsiodunek

Pentsio duinen aldeko protestei eusten diote jubilatuen eta pentsiodunek, eta mobilizazioen egitegiaren barruan, bihar, azaroaren 16an, Eibarren egingo den manifestaziora joateko deia egin dute. Manifestazioa Untzaga plazatik abiatuko da, 12:00etan. Pentsioak blindatzea eskatzen dute, eta pentsioen gaia ez lagatzea aldiro gobernuaren nahien eta ateraldien menpe. Bigarrenik, pentsioak KPlaren arabera gaurkotzea eskatzen dute, eta gutxieneko pentsio duina hilean 1.080 eurokoa izatea pentsiodun guztientzat.

Lore eskaintza eta elkarretaratzea, Memoriaren Egunean



Memoriaren Eguna ospatzeko, lore eskaintza egin zuten astelehenean Giza Eskubideen parkean. 2010etik egiten dituzte erakundeek Memoriaren Eguneko ekitaldiak azaroaren 10ean. Aurten, baina, Espainiako Gorteetarako hauteskundeak zirela-eta, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako instituzioek ez zuten domekan ekitaldirik egin. Elgoibarren astelehenean omendu zituzten biktimak, Elgoibarko Udalak antolatutako ekitaldian. Azken urteotan legez, alkateak, Ane Beitiak, lore-sorta utzi zuen Giza Eskubideen parkean dagoen Gernikako arbolaren ondoan eta elkarretaratze isila egin zuten ondoren han batutako guztiek.

Kalebarren plazan zabaldu du EAJk Batzokia, behin behinean



Kalegoen plazan zati bat galdu zuen eraikineko obrak bukatu bitartean, Kalebarren plazan, Gabi tabernaren ondoan, egongo da Batzokia. Lokal horretan Amaro Eraikuntzak enpresaren bulegoa egon da oraintsu arte. Asteburuan zabaldu zuten.

Bigarren eskuko azoka antolatu dute Mendaron domekarako

Bigarren eskuko azoka egingo dute Mendaron etzi, azaroaren 17an, Goñati frontoian. 11:00etan zabalduko dituzte postuak eta 14:00ak bitartean egongo da zabalik azoka. Azokan, haurrentzako tailerrak ere izango dira, Mandira estudioaren eskutik, eta antolatuzaileek iragarri dute azokan erosketa egiten dutenen artean 100 euro banatuko dituztela sarietan.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Mendaron

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur arratsaldean, Mendaron, ikastolan, 17:30etik 20:30era bitartean. Odola eman ostean mokadutxoak jateko aukera izango dute bertan emaitzak. Mendaroko Odol Emaitzen Batzordetik ohartarazi dute odol premia handia dagoela eta odola ematera deitu dituzte herritarrak.

Astelehenez geroztik salgai daude Milagrosaren egutegiak

Astelehenean jarri zituzten salgai Milagrosaren egutegiak, San Bartolome parrokiatik jakinarazi dutenez. Aurten, Maalako elizan eta parrokiaren bertan eskuratzen ahal izango dira, meza ordutegietan. San Lazaro egoitzan ez dituzte salduko.

Nagusien omenezko bazkaria, azaroaren 27an

Jubilatuaren asteko ekintzen barruan, 80 urte baino gehiago dituzten bazkidei eta aurten urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteei bazkaltzen emango diete Elgoibarko jubilatuaren biltokian, hilaren 27an. Bazkarian parte hartu nahi dutenek Biltokiko bulegoan eman behar dute izena azaroaren 18a aurretik, astelehenean barikura, 11:00etatik 12:00etara. Bazkide karneta aurkeztu behar da, eta urrezko ezteiak betetzen dituztenek familia-liburua ere bai.



Lurra urtzen ari da

Eñaut Izagirre, Monte Perdidoeko glaziarrean neurketak egiten.

Klima larrialdiak ozeanoetan eta kriosferan (izoztutako eremuan) duen inpaktuari buruz inoiz egin den txosten osoena aurkeztu zuen IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak joan zen irailaren azkenera. 36 herrialdetako 104 ikerlarik parte hartu zuten txosten horren lanketan, eta 7.000 bat argitalpen aztertu ostean ohartarazi zuten gizakiaren esku hartzearen ondorioek ez dutela atzera bueltarik. Berotegi efektua eragiten duten gasek berotu egin dute planeta, eta ondorioz, poloak eta izotza oro har urtzen ari dira eta itsasoa gora egiten. IPCCk ohartarazi du gaur egungo joera mantentzen bada, 2100. urterako metro bat baino gehiago igo daitekeela itsasoaren maila. Gai honi buruz askok beste eta gehiago ere badaki Eñaut Izagirre Estibaritz geografo eta glaziologo elgoibartarrak eta albisteari neurria hartzeko gakoak azaldu dizkigu.

- AINARA ARGOTIA -

Umeumetatik ibili da Piriniotan, urteak egin ditu tesi-proiekturako Patagoniako glaziarrak ikertzen, eta orain, aldi berean, Piriniotako glaziarrak ikertzeko hiru bat urterako proiektu batean dihardu buru-belarri Eñaut Izagirrek, Ekologiaren Piriniotako Institutuko eta EHUko ikertzailea den Ibai Ricorekin batera. Zientzialaria da, eta tentuz ari da prentsan lerroburu handi asko eman dituen gaiaz. "Ezin gara errazkerian jausi, ez eta titular salgarrien tentazioan ere. Batetik dagoelako hori, eta bestetik,

klima aldaketa zernahitarako elementutzat erabiltzea; ezin dizkiogu klima aldaketari egotzi muturreko eguraldi aldaketek eragindako desmasiak. Bada ordua politika sistema aldatzeko, gure lurren antolamentuaz gogoeta egiteko", adierazi du. Nolanahi ere, sinesgarritasun handiena IPCCren pronostikoei aitortzen die. "Munduan ez dago klima aldaketan aditua denik, eta neuk ere nire ikerketarlotik baino ezin dizut hitz egin, baina egia da IPCC batzordea izango dela ziurrenik klima aldaketari dagokionean eztabaida

IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldearen ohartarazpenak

- 1.** 2100. urterako metro bat baino gehiago igo daiteke itsas maila, tenperatura igoerak egungo joera mantentzen bada.
- 2.** XX. mendean zehar itsasoaren maila 15 zentimetro inguru igo zen, baina IPCCk ohartarazi du orain igoeraren erritmoa azkartu egin dela eta urtean 3,6 milimetro inguru igotzen dela.
- 3.** Tenperaturek gaur egungo joera mantenduz gero eta 2100ean bi gradu baino gehiagoko igoera gertatzen bada, itsasoaren maila metro bat baino gehiago igoko da: 110 bat zentimetro.

Tenperatura igoera bi gradutara mugatuta ere, 30 eta 60 zentimetro artean igoko litzateke itsas maila. Gas isurketak nabarmen murriztu behar dira, beraz, ezinbestean.

4. Itsasoaren maila igotzeak eta izotza urtzeak bizitokiak aldatzera behartuko ditu milaka eta milaka lagun munduan. Munduan, 680 milioi pertsona bizi dira kostaldean, garaiera baxuko guneeetan; 670 milioi goi mendietako guneeetan bizi dira, eta 65 milioi, uharte txikietan.

5. Ozeanoetako tenperaturak ere gora egin du. 1980 hamarkadatik gizakiok

isuritako gasen laurden bat xurgatu dute ozeanoek, eta horrek urak azidotzea ekarri du. Horrek ondorioak ditu ozeanoetako bioaniztasunean, bai eta uraren kalitatean eta eskuragarritasunean. Era berean, kalteak eragin ditzake hainbat jardun ekonomikotan.

6. Ipar Hemisferioko lurzoru izoztua azkar ari da urtzen, azpiegituretan kalteak eraginez eta negutegi-efektuko isurketa areagotzen.

7. Muturreko fenomenoak gero eta gogorragoak izango dira, bai eta gaur baino sarriago emango dira.


zientifikoak ondoen lantzen dituen”.

Sistema klimatikoa sistema konplexua dela dio, “konplexuegia”. Bost elementuk osatzen dute: atmosferak (Lurra inguratzen duen gas-geruza), hidrosferak (Lur azaleko zein azpiko urak), litosferak (Lurraren kanpoko geruza), kriosferak (izoztua dagoen eremuak) eta biosferak (izaki bizidunen multzoak), eta bost osagai horien arteko interakzioek sortzen duten ekuazio zaila da sistema klimatikoa. “Klima aldaketak sistemaren osagaiak aldatzen ditu, eta horiek, era berean, klimari eragiten diote. Klima, beraz, aldakorra da”.

Ekuazio horretan, baina, bada beste osagai bat, bereziki Industrializazio garaitik gaur arte oso kontuan hartu behar dena: gizakiaren esku-hartzea (eragin antropikoa). Izan ere, berotegi-efektuko gasak betidanik izan dira atmosferan, eta, hein handi batean, horri esker bizi gara gizakiok gainera, baina industria-iraultza gertatu zenetik kontrolik gabe areagotu dira, batez ere, erregai fosilak (ikatz, petrolioaren deribatuak eta gas naturala) erabiltzeagatik [batez besteko tenperaturak gradu batean egin du gora Industrializazio aurretik gaur arte]. Aldaketa handiena Bigarren Mundu Gerra (1939-1945) amaitu zenean hasi ziren igartzen zientzialariak, eta aldaketa horrek badu bere arrazoia: populazioa hazi egin zen; ekonomia suspertzen hasi zen; produkzioa azkartu eta handitu zen, eta bateratsu, kontsumo-gizartea sortu zen, eta horrek baliabide naturalen gehiegizko utsiapena ekarri zuen.

“Eta hor dago koska. Aldaketa klimatikoak beti eman dira Lurrean modu naturalean, eta gaur baino handiagoak ere bai. Lurra beroagoa izan zen sasoi batean, sumendiak aktiboagoak ziren, desoreka izugarriak gertatu ziren ekosistema guztietan eta espezie asko galdu ziren. Gaur, guri eragiten digulako kezkatzen gaitu. Aldi interglaziar batean gaude orain, glaziazio osteko garai bero batean, eta jakinda azkeneko bi milioi urtean periodikoki eman direla halakoak, beste glaziazio baterantz goazela esan genezake, baina ikusten duguna da tenperatura aurrekoaldi interglaziarrean baino apur bat baxuagoa izan arren, karbono dioxido maila altuagoa dugula atmosferan, eta joera horri eutsiz gero, tenperatura igo egingo dela. Lurrak bere inertzia du, baina guk Lurraren ekuazio zail horretan eragiteko gero eta ahal handiagoa dugu”.

Eta karbono dioxido eta berotegi efektua eragiten duten gasen kontzentrazioak eta horrek eragiten duen tenperatura gorakada kontuan hartuta, hainbat proiektio egin dituzte zientzialariek. Oharrazpen horiek kontuan hartuta, Nazio Batuen Erakundeak behin eta berriz esan du tenperaturaren igoera 1,5ean mugatu behar dela, eta horretarako, emisioak erdira ekarri behar direla berandu baino lehen. “Kontua da hori sinatu duten 70 herrialdeek guztira isurtzen dutena %7 dela. Sinatu dutenen artean ez daude gehien kutsatzen dutenak. Rio de Janeiron antolatutako Lurraren Goi Bile-




Kriosfera, izoztutako eremua.

ran ere adostu zituzten neurri batzuk, baina gauza gutxi. Gero etorri zen Kyotoko Protokoloa 1997an, eta beste horrenbeste”. 2008 eta 2012. urteak bitartean, 1990. urtean aireratzen zen gas kopurua %5,2 murriztea adostu zuten Kyotoko Protokoloaren sinatzaileek, eta agirian jaso zuten industria iraultzatik etekin handiena ateratako herrialdeek erantzukizun handiagoa zutela, eta beraz, kutsatzaile handienak, AEBak eta Japonia, isurketak murrizten lehenak izan beharko lirakeela. Estatu industrializatuetan, baina, 34k onartu zituzten helburuok eta negoziazioak zailak izan zirenez, kutsatzeko eskubideen azoka sortu zuten, hainbat herrialdek helburuak errazago bete zituzten. Hala, zegoen baino gehiago kutsatzen zuten herrialdeei protokoloak ezarritako mailaren azpitik zebiltzan estatuek erabili ez zituzten eskubideak erosteko aukera eman zieten, eta horrez gain, gas kutsakor gehiago aireratzeko kredituak lortzeko aukera ere bai, ustez kutsadura murrizten duten ekimenak gauzatuz gero. “Kutsatzen jarraitu ahal izateko, AEBek aukera zuten Kiribatiri zegozkion tasak erosteko. Zentzugabekeria handiagorik, nekez. Ematen du, hala ere, herrialde industrializatuetan emisioak apur bat neutralizatu ditugula, baina jaitzi ez, eta gainera, garatzeko bidean diren herrialdeak orain ari dira gehiago isurtzen, garatzen ari diren heinean. Eta hor dago paradigma: zeintzuk gara gu garatzeko bidean direnei kargu hartzeko, 500 urtean edozer egiten jardun garenean? Horra gogoetarako beste puntu bat”.

Glaziarrek, indikatzaile onak

Kontuak kontu lurra berotzen ari da, eta horren erakusletzat kriosferaren, izoztuta dagoen eremuaren, inguruko datuak eraman ohi dira sarri egunkarietako lehen orrietara, eta bereziki, glaziarren atzera-egitearen inguruko irudiak. “Glaziarrek klimaren indikatzaile sentikorrek dira. Oso sentiberak dira, eta horregatik, geoindikatzzaile onak dira, bereziki goi altitudeetan daudenak, Piriniotakoak-eta. Beste asko ez dira, baina, horren indikatzaile onak. Patagoniakoak, adibidez. Horietan itsasoak konplexuagoa egiten du glaziarren dinamika”, arrazoitu du Izagirrek. Glaziarretan espezialdu da Izagirre, baina bereziki goi mendietako glaziarrek



1929 G. Pluschöw

ikertu ditu, eta zehaztaper hori egin du glaziarretaz hitz egiten hasierako, "glaziar guztiak ez dutelako informazio bera ematen, edo gutxienez, ez dutelako maila berean erantzuten eta eragiten itsasoko uraren mailaren igoeran".

Lur-azaleraren %10 da kriosfera eta hor sartzen dira glaziarrek, izan goi latitudeetakoak (poloetatik gertu daudenak) nahiz goi altitudeetakoak (goi mendietakoak), bai eta itsasoan sortzen den izotza, elurra bera eta permafrosta (luzaroan udan izoztuta mantentzen den lurzorua), besteak beste. Izoztutako lur azalera horren %90 Antartikan eta Groenlandian dago, eta gainerako %10a, mundu osoko goi mendietako glaziarretan, 180.000 bat guztira. Bigarren talde horretan daude glaziarren %80 inguru, tartean gure Piriniotakoak. Egitura termikoz epelak dira horiek, 0 gradu bueltakoak, eta kilometro eta erdi baino gutxiagoko azalera dute, eta bi ezaugarri horientatik, desagertzeko arrisku handiagoa dute. "Piriniotako glaziarrek ez badituzue zoazte lehenbailehen ikustera, gure proiektzioen arabera 2040-2050 alderako galduko dira-eta. Harribitxi batzuk dira". Piriniotakoak, eta goi mendietako glaziar guztiak oro har, atzera egiten ari dira. Monte Perdidoako glaziarrek, esate baterako, ia lau metro galdu ditu lodieran 2011tik. Patagonia da, hala ere, mendiko glaziarretan galera-tasa negatibo handienak dituen, baina dena den, ez da puntu kritikoena munduan, ur kopuruari dagokionez beste eremu askotan izotz gehiago dagoelako: Alaskan, Himalaian, Kanadan...

Masa-balantze txarra dute beraz mendiko glaziarrek, galtzeko bidean daude, eta beren eragina dute, baina ez sistema handietako glaziarren atzera-egiteak duen bestekoa". Goi altitudeetako glaziar horiek guztiak urtuta ere -eta hori ez da gertatuko ehun urtean metro erdian egingo luke gora itsasoaren mailak. "Eta ez da gutxi, baina ezin da konpa-

ratu Groenlandiako eta Antartikako izotza urteak eragin dezakeen hondamendiarekin, Groenlandiako izotza oso-osoa urtuko balitz itsasoaren mailak zazpi metroan egingo lukeelako gora eta Antartikaren ekarpenarekin, 65 metroan, eta Groenlandiako izotza hasi delako dagoeneko urtzen eta mendiko glaziarrek ematen dutena baino ur gehiago ematen. Azkeneko bost urteak oso larriak izan dira, eta bereziki aurtengo uda, ia bost egunean milimetro bat egin duelako gora itsas mailak haien emanagatik".

Oraintsura arte ozeanoaren espansio termikoak zuen eragin handiena itsasoaren mailaren igoeran, baina gaur badakigu glaziarretatik datorren ura dela erdian baino gehiagoan, eta ekarpen handiena Groenlandiarena dela. "Ikusi dutena da, gainera, lehen kostaldera mugatzen zen urtze-prozesua, barrurago ere hasi dela". Antartika, berriz, sistema handia da, munduko laugarren kontinentea. %95ean izotza da, eta han dago ur gez kopuru handiena. Oraintsura arte uste zuten Antartika nahikoa egonkor zegoela, ekialdeko aldean, izotz-kopuru handiena dagoen eremuan, masa-balantzea ona zelako, baina mendebaldeak, Antartikako penin-



Hego Georgiako Bertrab glaziarren atzera-egitea aztertzen duten argazki-kamerak mantentzen izan da berriki Izagirre.



E. Izagirre 2014

tsulak eta Amundsen Itsasora iristen diren glaziar handiek ez dute horren osasun onik ageri. Antartikan, batez beste, bi kilometrotik gorako lodiera du izotzak, eta gehienez, bost kilometro artekoa. Batez beste hemendik Orhi puntaraino eta gehienez Mendi Zuriraino izotza balego bezala da". Sekulako bolumena da hori, pisu handia, eta horrek lurrazalaren hondoratzea eragiten du, lurrazala ez delako gauza solido finko bat, litosferan magmarekin lotuta dagoen heinean. Lurra hondoratuta dago beraz, eta lurrazalean pilatutako izotza urtzen hasten bada, itsasoko ura maldan behera has daiteke eta urtze-efektua handitu. "Antartika mendebaldean gertatzen ari dena horregatik da kritikoa. Egia da izotz hori guztia urtuko balitz, gehienez bost-sei metroan igoko litzatekeela itsasmaila -eta asko da-, izotzaren kopuru handiena ekialdeko Antartikan dagoelako, baina hala ere, inguru hori desegonkortzea puntu kritikoen langa guztiak pasatzea litzateke, glaziarren atzera-egitea azkartuko litzatekeelako". Bada beste fenomeno bat ere aintzat hartzekoa. "Antartika penintsulako izotz plataformak, itsasoraino iristen diren izotz-harresiak, askatzen ari dira eta izebergak sortzen. Fenomeno naturala da hori, baina plataforma osoak askatuko balira, xanpain-botilari kortexoa kentzean gertatzen den gauza bera gertatuko litzateke: deskarga handia eta izotz-galera azkarragoa".

Glaziarren garrantzia

Hainbat arrazoigatik dira garrantzitsuak glaziarrek. Batetik, ur-iturri eta erreserba direlako. Himalaian, esaterako, komunitateak bizi dira haranean, glaziarretatik gertu, eta horiek zuzenean jasotzen dute glaziarren emaria, batez ere garai lehorretan. Gauza bera gertatzen da Andeetan. "Piriniotako glaziarrek ur erreserba direla esateak, aldiz, ez dauka zentzurik, haien emaria hondarra delako". Bizitza ere badago glaziarretan eta gai dira euren ekosistemak hornitzeko. "Urtzean, ura ematen dute eta ura bizia da. Bakterioak, algak... sor daitezke, kate trofikoaren lehenengo katea". Gure ondare natural eta kulturalaren parte ere badira. "Gure paisajea landu dute glaziarrek. Pirinioak diren modukoak dira glaziarrek egon direlako. Aralarren daukagun Arritzaga ha-

Argazkian, Vergara glaziarren (Suaren Lurraldea) irudi-aldaketa, 1929 eta 2014 artean.

ranaren goialdea ere, glaziar bati zor diogu". Baina arriskuak ere eragin ditzakete glaziarrek. "Glaziar zuriez gain, beltzak ere badaude, harroka ezalitatekoak. Piriniotan ere badauzkagu halakoak, garai hotzagoetan sortutakoak. Gertatu izan da Perun-eta meatzariak glaziar beltzak zulatzen hastea mineral bila eta sekulako arazoak eragitea. Bestetik, gerta daiteke baita ere glaziarren azpitik filtratzen den urak bat-batean lakuak sortzea, eta lakuak bolumena irabazi ahala, glaziarrek atzera egitea eta horrek glaziarren aurrean pilatutako sedimentu-pila (morrena) leherraraztea. [Perun, Yungayn, 20.000 lagun hil ziren 1970ean halako batean]. Komunitateak glaziarretatik gertu bizi diren lekuetan dira arrisku handiena, jakina: Andeetan, Peru eta Bolivia inguruan, eta Himalaian bereziki.

Klima aldaketaren eragina, baina, ez da glaziarretara mugatzen. Artikoan, %40ko galera neurtu da itsasoko izotzean, eta esan gabe doa zein larria den hori. "Izan ere, itsas-azalera zabalagoa izoztu gabe egotean, eguzki-erradiazio handia xurgatzen du Ozeano Artikoak, eta horrek kriosferako elementuen urtzea anplifikatzen du". Era berean, Ipar Hemisferioko lurzoru izoztua ere azkar ari da urtzen, azpiegituretan kalteak eraginez eta negutegi-efektuko isurketa areagotzen, izotza urtu ahala izotzean pilatutako metanoa eta beste gas batzuk atmosferara ari direlako isurtzen. Azkenik, goi mendietako haitzetako arrakalatan pilatutako izotza urtzeak harri-jausi arrisku handia eragiten ari da Alpeetako eta Piriniotako inguruetan, esaterako. "Gizakirik bizi ez balitz inguru horietan ez legoke arazorik, prozesu naturala delako hori, baina betiko kontua da". Horregatik, ezinbestekoa irizten dio politika sistema aldatzeari: "Marea biziek sor ditzaketen kalteak-eta ez dira urtero gertatzen. Gerta daitezke, akaso, 25 urtean behin-edo, baina politikak lau urteka funtzionatzen du gurean. Eta hasi beharko dugu ba klima aldaketak ekar ditzakeen efektuei aurrea nola hartu pentsatzen, ala? Beharbada pentsatu beharko dugu Elgoibarren ere ibaiari bere lautada ematea eta gure baso kudeaketa aztertzea. Inbertitu beharreko dirua asko bada ere, luzera merkea izango da". Klima aldaketak agenda politikoan egon behar duela nabarmendu du, baina feminismoaren antzera, gai transbertsala izan behar duela.

Jakingarriak

- ◆ Uraren banaketa planetan: %97 ur gazia da. %3 bakarrik da ur geza eta %3 horren barrua ia %70etik gora glaziarretan dago, %22 inguru lurrazpiko uretan, eta ikusten dugun ura, ibaietan, lakuetan... dagoena, %1 baino ez da. Eta ura finitua da.
- ◆ Lur azalera izoztuari esaten zaio kriosfera. Lur-azalera osoaren %10 da. Izoztutako lur azalera horren %90 Antartikan eta Groenlandian dago, eta gainerako %10a, mundu osoko goi mendietako glaziarretan (180.000 bat dira). Horietako %80 glaziar oso txikitat hartzen dira, 0,5 kilometro koadroko azalera baino txiagoa dutelako.



Emakumeak industrian izan duen papera jaso du Makina Erremintaren Museoa. Arg.: Eibarko Udal Artxiboa

Emakumeak industrian

Emakumeak industrian jokatu duen papera azaleratzeko argazki erakusketa antolatu du Makina Erremintaren Museoa. Abendura bitartean egongo dira ikusgai argazkiak museoan bertan, baina argazkien bidez emakumeak lantegietan egin duten lana hobeto ulertzeko bi bisita gidatu antolatu dituzte, biharko. Nerea Alustiza historialariak emango ditu azalpenak. 11:00etan izango da lehenengo saioa, euskaraz, eta segidan, gaztelaniazko saioa emango du. Gipuzkoako enpresetara mugatu dute erakusketa, eta lurralde historiko horretan emakumeak industrian sartzea ahalbidetu duten enpresa garrantzitsuenen erreposoa egingo dute.

- AINHOA ANDONEGI -

Emakumea, historikoki, gizonaren itzalean aritu da industrian, baina bigarren plano horretatik ere handia izan da bere ekarpena. Makina Erremintaren museoak argitaratu atera du emakumeen lan isilak gure eskualdeko eta Gipuzkoako ekonomiarik, kulturarik eta, oro har, gizartearik egin dion ekarpena. Nerea Alustiza (Eibar, 1963) historiagileak lagundu du erakusketa honi buruzko informazioa batzen, eta emakumeak industrian izan duen bilakaerari buruzko datu askorik ez dagoen arren, bitxikeri eta informazio interesgarri asko batu ditu. Emakumea XVIII. mendean ahaieran hasi zen industrian barneratzen, eta XIX. mendeko paper "garrantzitsua" hartu zuen zenbait enpresatan. Eibarren, esaterako, emakumeek damaskinatuan egiten zuten lan. XVIII. mendean marrazketa eskola publikoa zabaldu zuten, eta gizonaek gehiago ziren arren, emakumeak ere joaten ziren marrazten ikastera. Armagintza enpresa asko zeuden Eibarren, eta oso ohikoa zen grabatuetan eta gerora damaskinatuan emakumeak aritzea. Oso lan teknikoa zen, eta gizonaek baino esku txikiagoak edukitzea abantaila zitzaien. Gainera, damaskinatuan jarduteko ez da indar fisiko handirik behar, eta enpresariari ondo etortzen zitzaien emakumeek ematea lan hori, lan baldintza txarragoetan izan zitezkeen lanean. Emakumeek gutxiago kobratzen zuten, eta banketxean libreta bat zabalteko ere senarraren edo aitaren baimena behar izaten zuten. Kontraturik gabe egiten zuten lan askok, bereziki lana etxean egiten zuten emakumeek. Espazio txikian egiteko lanak izaten ziren, eta gehienek euren etxeetan egiten zituzten lanak, enkarguz. Egingako pieza kopuruaren arabera kobratzen zuten, baina beltzean. Ordain horren zait bat etxeko ekonomiarik ekarpena egiteko erabiltzen zuten, baina hala ere, lan munduan barneratzeak emakumeen independentzia eta autonomia ekarri zion, eta Alustizak

uste du Eibarren hori asko igartzen dela. Emakumea oso gazte sartzen zen lantegian. Ikasketak amaitu eta 14 bat urterekin hasi ziren lanean, eta normalean, ezkondu arte jarduten zuten. Oso gutxi jarraitzen zuten ezkondu ondoren lanean, eta jarraitzen zuten horiek ama izateaz bat lagatzen zuten. XIX. mendean emakumeek tailerreko lana egiten zuten, produkzioan aritzen ziren gizonaek bezalaxe, eta gerora, XX. mendean, bulegoetan sartzen hasi ziren. Gizonaek idazkari lanetan aritzen ziren emakume gehienak, eta Elgoibarren Estarta y Ecenarro enpresa izan zen horren adibide. BARREN astekariak 2014ko irailaren 12an argitaratu zuen erreportajea jaso zuten Estarta y Ecenarron lan egindako emakume batzuen bizipenak. Garbiñe Uriguen (1933), Gloria Canales (1951), Maria Mercedes Zubiaurre Ansola (1941), Maite Vitores (1954) Nieves Prado (1953), Juana Gallarza (1927), Rosario Beloki (1930) eta Lurdes Barinagarrementeria (1954) izan ziren orri haietako protagonistak. Bulegoko lanetan aritu ziren Garbiñe eta Rosario ez beste guztiak, eta ardura handiko karguak bete zituzten haietako askok, baina hala ere, gizonen izenak nabarmendu ziren beti euren gainetik. Hala ere, "zorteko" sentitzen ziren Estarta y Ecenarron lan egin izanagatik.

Estarta y Ecenarrok Elgoibarren egin zuen bezala, Gipuzkoan izan ziren beste enpresa asko emakumeak industrian barneratzea ahalbidetu zutenak. Horietako enpresa batzuk desagertuta daude dagoeneko, baina badira batzuk gaur egunera arte iritsi direnak, eta hori hein handi batean, makina erremintari esker izan da. Makina Erremintaren Museoa eboluzio horren erakusleia da, eta emakumeek gizartearik egin dioten ekarpenarekin batera, makina erremintak enpresen garapenean izan duen garrantzia ere jaso dute erakusketan.

ORBEA (Eibar, 1958)

Orbea Hermanos enpresa 1858an sortu zuten Eibarren Juan Manuel, Mateo, Casimiro eta Petra neba-arrebek. Gizonen izenak gogoratzen dira gehienbat, baina kasu honetan Petra Orbea ere oso ezaguna izan zen Eibarren. Armak egiten hasi zen, baina 1930ean bizikleta sektorean barneratu zen, eta horretan dihardu gaur egun. Orbean emakume askok egiten zuen lan, armagintzarako kartutxoak prestatzen, bereziki. Kartutxoei polbora sartzea izaten zen haien lanik garrantzitsuena. Orbea anaiak oso ezagunak ziren Eibarren, eta enpresa honek onura handiak ekarri zizkion herriari, eta baita eskualdeari ere.

BRUNET (Lasarte, 1948)

Jose Brunetek sortu zuen enpresa. Brunet familia dirudunekoa zen, eta garai hartan ere ahalmen ekonomiko handia zutenek sortzen zituzten enpresak. 1894. urterako 450 langile zituen enpresak, eta horietatik 271 ziren emakumezkoak. Oihalgintzako enpresa da, eta hasieratik izan ziren emakumezkoak gehiago lantaldean. Oihal eta harizko lanak egiten zituzten, eta asko esportatzen zuen. Gizarteari ekarpen garrantzitsua egin zion etxebizitzak, ekonomatza eta neska zein mutilentzako eskolak eraikiz. 1956an Azkarate familiari saldu zizkieten ondasun guztiak, eta 1986an enpresa itxi egin zuten. 320 langile geratu ziren lanik gabe.

NIESSEN (Errenteria, 1914)

Guillermo Niessen alemaniarrek sortu zuen enpresa 1914an. Lehen Mundu Gerratik ihesi iritsi zen Niessen Errenteriarra. Tarmaina txikiko mekanismo elektrikoak egiten hasi ziren, eta lan horretan garrantzi handia izan zuten emakumeek. Eskuen trebetasuna eta pazientzia handia beharrezkoak ziren muntaia lanetarako, eta emakumeen esku finak oso egokiak ziren lan horretarako. 30eko hamarkadan ehun bat langile zituen enpresak, eta datu zehatzik ez dagoen arren, jakina da horietako asko emakumezkoak zirela. Guillermo hil ostean haren seme Carlosek hartu zuen enpresaren ardura. 50eko hamarkadan famili-enpresa izateari utzi zion. Gaur egun 200 bat langile ditu.

ALGODONERA SAN ANTONIO (Bergara, 1846)

1846an zabaldu zuen enpresa Jose Blanc aragoarrak. 1860. urterako 500 bat langile zituen, eta lantaldearen zati garrantzitsua osatzen zuten emakumeek. Kardatze eta ehungintza lanetan emakumeak aritzea oso ohikoa zen. Blanc hil zenean, haren emazteak hartu zuen enpresaren ardura, eta ikusita lantaldearen zati handia emakumezkoek osatzen zutela, edoskitzerako gune bat sortu zuen enpresan. Ikusi zuen langileak ama izaten zirenean lana uzten zutela, eta hori ebartzeko neurria hartu zuen. Berak ez zeukan umerik, baina gai horrekin sensibilizazio handia zeukan.

BOINAS ELOSEGI

(Tolosa, 1858)



Antonio Elosegik sortu zuen enpresa, eta hasieratik sartu zituen emakumezkoak lantaldean. Beraien lema hauxe izan zen sorreran: *Emakume bat, egun bat, txapel bat*. Produkzio hori handituz joan zen urteekin, eta 1883an 150 bat txapel egiten zituen langile bakoitzak eguneko. 1918rako 200 langile zituen enpresak, eta 3.500 txapel egiten zituzten eguneko. Makina erremintak ahalbidetu zuen kasu honetan ere produkzioaren hazkundea. Gaur egun ere martxan dago enpresa, etengabeko berrikuntzan. Hasieran bezala, emakume askok egiten dute lan enpresan.

ALFA
(Eibar, 1920)

Josteko makinengatik ezaguna den arren, Alfa enpresa armagintzan hasi zen. Espainiako lehenengo kooperatiba izan zen, eta enpresako bazkideentzako gauza pila bat sortu zituen herrian. Ekonomatza, txango bereziak bazkideen seme-alabentzat, mediku aseguruak... Alfak ekarpen handia egin zuen Eibarren. Emakumeen lana armak paketeetan sartzea izan zen batez ere. Horrez gain, armen kontserbaziorako beharrezkoa den koipea ere ematen zuten. 1925ean josteko makinak egiteari ekin zioten, eta hor ere andrazko asko ibili ziren, pieza txikiekin lan egiteko esku finak oso aproposak zirelako.



On egin!

GIDA GASTRONOMIKOA
...eta kitto! eta Barren astekarietan
argitaratutako jatetxe eta tabernen gida
2019ko azaroak 15



AGUIÑASPI taberna
Urkizu 22. EIBAR
943 12 80 86

Eguneko menua, menu berezia,
gosariak, plater konbinatuak, razioak,
bokatak, hanburesak, pintxoak...



ALBERT taberna
Miguel Aginaga, 6ac EIBAR
943 38 31 77

Eguneko menua.
Asteburuetako menua eta karta.



ARKUPE gastro pub
Isasi 2. EIBAR
943 70 26 91

Gosariak, eguneko menua, karta,
talde-menua, plater konbinatuak,
hanburesak, catering zerbitzua.



ASTELENA gastroteka
Estaziño 7. EIBAR
943 20 70 32

Txuleta, razioak, pintxoak...
Especialitatea: jatorrizko kafeak eta teak.
Egunero kafe-txigortua.



BAISI taberna
Urkizu 11. EIBAR
943 53 08 16

Especialitatea: patata-tortilla,
Entsaladilla, bokatak, hanburesak...
Ardoetan aukera zabala.



BARATZE gourmet
Bidebarrieta, 39. EIBAR
943 84 55 03

Jatetxe-taberna kontzeptu berria.
Pintxoak, razioak, karta eta ardo aukera
zabala. Sormen sukaldaritza.
Etxera eramateko janaria.



BELAUSTEGI BASERRIA jatetxea
San Migel Gaina. ELGOIBAR
943 74 31 02

Ezkontzak, jaunartzeak, bataioak,
urrezko eta zilarrezko ezkontzak,
enpresa bazkariak eta kintoak. Karta,
eguneko menua eta dastatze-menua.



BIRJIÑAPE-BERRIA kafetegia-jatetxea
T. Etxebarria 16. EIBAR
943 82 13 41

Eguneko menua, bokatak, talde bazkari
eta afariak, jaunartzeak, bataioak...
Zure aurrekontura egokitzen gara.
Etxerako zerbitzua: bapobapo.com.



BOSSA gastroteka
Ego Gain 7. EIBAR
943 20 67 53

Etxean bezala. Gosariak, pintxoak,
bokatak, razioak, pizzak eta
hanburesak.



GABI jatetxea

Kalebarren plaza. ELGOIBAR

943 74 12 30

Hemengo jaki freskoekin egindako sukaldaritza. Jaunartzeak, bataioak, Lunch-ak, eguneko menua, karta, enpresa bazkariak...



IBAI-ONDO jatetxea

Giza Eskubideen parkea 1. ELGOIBAR

943 25 60 28

Bazkari tradizionalak, parrilla, enpresa menuak, karta eta eguneko menua.



KANTABRIA jatetxea

Arrate. EIBAR

943 12 12 62

Karta, menu bereziak, eguneko menua, enpresa bazkariak, ezkontzak, jaunartzeak, bataioak...



KILI KILI croissanteria

Ibarkurutze 12. EIBAR

943 20 24 01

Eguneko menua, menu bereziak, gosariak, pintxoak, bokatak, afariak, txokolatea eta txurroak...



LUZAIDE jatetxea

Mendarozabal z/g. MENDARO

943 75 61 66

Eguneko menua 12 € astegunetan. Asteburuetako eta jaiegunetako menua 14 €an. Pintxoak eta ogitartekoak arratsaldeko 20:00ak arte egunero.



ONGI ETORRI taberna

T. Etxebarria 21. EIBAR

943 20 70 07

Gosariak, pintxoak, karta, talde-menua, catering zerbitzua...



PAULANER garagardotegia

Ego Gain 3. EIBAR

943 20 13 29

Garagardoetan aukera aparta, gosariak, eguneko menua, espezialitateak, hanburgesak...



PORTALEA taberna

Bista Eder 10. EIBAR

943 20 68 68

07:30etik zabalik. Eguneko menua. Ostiraletan hanburgesa menu berezia. Ostiral eta zapatuetan karta eta plater konbinatuak. Aste barruan enkarguz.



SALENTO ristorante italiano

Pedro Migel Urzuzuno 10. ELGOIBAR

943 74 01 96

Eguneko Menua, pizza Italiarrak. Etxez etxeko banaketa aste guztian zehar.



TIRO PITXON jatetxea

Arrate. EIBAR

943 20 88 59

Eguneko menua, menu bereziak, karta, ospakizunak. Bi jantoki (bakoitzean 80 pertsona). Astelehenetan itxita.



TXALTXA jatetxea

Isasi 7. EIBAR

943 20 11 26

Plater konbinatuak eta razioak barran. Eguneko menua, menu berezia eta karta jangela nagusian. Astelehenetan itxita.



Hotel **TXARRIDUNA** jatetxea

Ermuaranbide 1. ELGOIBAR

943 74 04 90

Eguneko menua, kinto ospakizunak, enpresa menuak, karta, bataio eta jaunartzeak.

200 kilo gaztaina banatuko dituzte bihar, Magosto Eguna ospatzeko

Magosto jaia antolatu du Galiza Kultur Etxeak biharko. Galiziatik ekarritako 200 kilo gaztaina erreko dituzte Maalako parkean, eta 12:00etatik aurrera banatuko dituzte, doan. Ribeiro ardo txuria ere egongo da, baina ardoa dastatzeko kati-lua erosi beharko da, bi euroan. Galiziako beste hainbat produktu ere egongo dira: txorizoa, likorea, txerri-belarria...



'Lau teilatu' abestiaren bideoak eskatu dituzte EITB Maratoirako

Haurren minbizia da aurtengo EITB Maratoian landuko duten gaia, eta batzen duten dirua ikerketarako eta sentsibilizaziorako erabiliko dute. EITB Maratoia berrikuntzekin dator aurturten, eta egitasmo honen parte izateko gonbidapena egin dio euskal gizarteari. *Lau teilatu* abestiaren bertsiorik onena sortzea du helburu aurtengo maratoiak, eta nahi duen orok izango du parte hartzeko aukera. Jasotako interpretazio guztiekin bideo-klipa osatuko dute, eta abenduan estreinatuko da. Parte hartu nahi dutenek EITB Maratoiareneko *Zure bertsiorik onena* atalean eskuragai dagoen formularioa bete beharko dute, euren bideoak bidaltzeko.

Santa Zezilia ospatzeko hainbat musika ekimen antolatu dituzte datorren asterako, Elgoibarren eta Mendaron

Santa Zezilia Eguna izango da gaur zortzi, eta horren harira, hainbat musika ekitaldi egingo dituzte datorren astean Elgoibarren zein Mendaron. Eguna bera musikaz hasteko, Elgoibar Ikastolako ikasleek kalejira egingo dute Kalegoen plazatik ikastolara.



Astelehenean eta martitzenean, bestalde, kontzertuak egingo dituzte musika eskolan, eta eguenean, berriz, musika eskolako trikitilari eta txarangaren kalejira izango da, 19:00etan hasita. Mendaron martitzenean egingo dituzte Santa Zeziliaren omenezko ospakizunak: Ameikutz musika eskolakoek eta euskal dantza taldekoek Musikalean jaialdia egingo dute frontoian, 19:00etatik aurrera.

Zuberoako ikastolei laguntzeko otarrak salgai daude Elgoibarko Izarran



Zuberoako ikastolei laguntzeko hango produktuez osatutako saskiak salduko ditu aurturten ere Elgoibarko Izarrak. Bi saski izango dira aukeran: Irati, 52 eurokoa, eta Ahüzki, 40 eurokoa. Eskerak egiteko azken eguna azaroaren 27a izango da, eta interesatuek e-postaz edo telefonoz egin beharko dituzte eskaerak: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626.

Batutako dirua Sohütako Eperra eta Alokoko Basabürüko ikastolei laguntzeko izango da. Seme-alabek euskaraz ikastegatik, gurasoek diruaren %30 jartzen dute, eta administrazioek, %20. Gainerako %50a honako honen moduko ekimenen bidez eskuratzen dute. 2018ko salmentari esker, esate baterako, 15.000 euro bildu zituzten. Beste helburu bat ere badu, baina, ekimen honek: Zuberoako ekoizleak ezagutaraztea. Aurturten hauek hartu dute parte: Azkorria (Muskindi), Kokoitxea (Miti-kile), Barneixea (Ligi) eta Berhüta (Gotaine) gaztak, Uhartea (Barkoxe) ahate gibela, Okina (Idauze) gailetak, Oihenartea ezitia (Urdirnarbe), Axoa (txahalki kontserba), Autxetxea (Ozaze) eta Arrokain (Muskindi) txerriki mozkinak.

Ahüzki otarrean produktu hauek daude: ardi gazta erdia, ahate gibela (125 gr.), gurinezko gaileta paketea (150 gramo), ezitia (kilo erdi), txerriki pate (200 gramo) eta txerriki odolkia (200 gramo). Irati otarrean, berriz, beste hauek: Ahüzki otarrak dakartzan produktuez gain, berotu eta jateko prest dagoen txahalki kontserba piperrakin (640 gramo) eta txerriki lukainak (400 gramo).

Tokikom Sarietarako finalisten artean dago 'BARREN' astekaria

Tokikom Sariak banatuko dituzte gaur Basaurin, herri komunikabideen lana erre-konozitu eta saritzeko. 2019an toki komunikabideetan argitaratutako portadarik, edukirik eta ikus-entzunezkorik onenak aukeratu dituzte, eta azalik onena aukeratzeko hiru agerkari onenen artean sailkatu da BARREN. 2019ko Mugertza Krosari eskainitako azala izan da aukeratu. Guaixe eta Puntua astekariekin izango du lehia BARRENEK.



Serious Business taldeak kontzertua emango du gaur



Sinuösek antolatuta, Serious Business talde zarauztarrak kontzertua emango du gaur, Kultur Etxeko sotoan. Aitor Badiola gitarra-jole elgoibartarraren proiektu berria da Serious Business, eta Maria Armendariz (baxu elektrikoa, koroak), Antxon Sarasua (teklatuak, koroak) eta Ander Zulaikak (bateria, koroak) osatzen dute taldea. 2015ean sortu zuten taldea, eta *The last port session* bigarren diskoa kaleratu berri dute. 23:00etan hasiko da emanaldia.

Kuadrilla Eguna antolatu dute azaroaren 30erako

Herriaren erdigunean gazteen presentzia handitzeko eta gazte lokaletan egoten diren neska-mutilen arteko harremanak "estutzeko", Kuadrilla Eguna antolatu dute bigarrenkoz Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak eta Berdintasun Sailak, herriko gazteekin elkarlanean. Mausitxa txarangaren kalejira, musika ekitaldiak eta bazkaria izango dira egitarauko ekitaldi nagusiak. Maalan egingo dute bazkaria, eta 16 urtetik gorakoek hartu ahal izango dute parte. Interesatuek azaroaren 17a baino lehen eman beharko dute izena honako estekan sartuta: <https://labur.eus/bazkariakuadrillaeguna>. Bazkariko menua Euskal Parrillak prestatutakoa izango da: kroketak, perretxiko risottoa, oilaskoa, Muruako pasteltxoak, kafea eta edaria. Prezioa 12 eurokoa izango da.



Anton Urreistiren margolanen erakusketa

Anton Urreisti mendarorak azken bi-hiru urteetan eginiko margolanak jarriko ditu ikusgai gaur, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Zazpi urte pasatu dira Elgoibarren azken aldiz erakusketa egin zuenetik, eta ibilbide horretan izan duen eboluzioa ikusi ahal izango da bere lanetan. Oraingoan, gainera, bi lagunekin batera jarriko du erakusketa: Jesus Villaverde eskulturgilea eta Carmen Rivera margolaria. 18:30ean zabalduko dute erakusketa, eta hilaren 29ra arte egongo da ikusgai.

Euskararen eguneko esaldi lehiaketak badu irabazlea

Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek eta Gaztelekua Udal Zerbitzuak Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, esaldi lehiaketa antolatu dute seigarren urtez, eta DBHko Nerea Urbietaren esaldiak irabazi du: *Jardun eta jardun, danona egin daigun!*. Guztira 106 esaldi aurkeztu dituzte aurtengo ekitaldian. Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an, Nerea Urbietaren esaldia daramaten kamisetak banatuko dituzte Elgoibarko ikasleentzako artean, debalde.

'Gararock' jaialdiko laburpen-bideoa sarean da

Mendaroko Gararock jaialdian hartutako irudiekin osatutako bideoa zabaldu dute antolatzaileek Interneten. La Basuk, Joseba Irazoki eta lagunek, Koinek eta ibilbide eta sona handiko beste hainbat taldek eman zituzten kontzertuez gozatzeko aukera izan zuten Mendaron batutako musikazaleek, eta antolatzaileek Akhonmediak egin duen bideoa igo dute Youtube sare sozialera. Helbide honetan ikus daiteke: <https://www.youtube.com/watch?v=kueuFAQS8bo&feature=youtu.be>



► Bilatu, konparatu eta ondo aukeratu

Eguberriak gerturatzeko ari dira, eta dagoeneko, ume eta hain ume ez direnak ere hasi dira Olentzerori eta Mari Domingiri zein opari eskatuko dieten pentsatzen. Sasoi honetan jostailuen iragarkiek tarte handia hartzen dute medio eta saltokietan, eta ez da erraza izaten jostailu egokia aukeratzeko. Aukeraketa horren garrantziaz jabetuta, jostailu erakusketa antolatuko dute Ludoteka eta Gaztelekua Udal Zerbitzuek eta Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiak elkarlanean. Azaroaren 20tik 23ra izango da, Kultur Etxeko sotoan eta Aita Agirren.



Ander Osoro, Miel Rodriguez, Maria Cid eta Maialen Astigarraga.

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiak, Ludotekak eta Gaztelekua jostailu erakusketa antolatuko dute, helduei laguntzeko jostailu egokiak aukeratzeko. Merkatuko eskaintza aztertu, eta hezkidetzako, kooperazioa, komunikazioa eta beste hainbat irizpide kontuan izanik, Otiak 99 urtera artekoentzako egokiak diren 60 bat jostailu jarriko dituzte ikusgai. Aurten, estreinakoz, bi espaziotan kokatuko dute erakusketa: 0-8 urte bitartekoentzako jostailuak Kultur Etxeko sotoan jarriko dituzte, eta 8tik aurrerakoentzako, berriz, Aita Agirren.

Horrekin batera, Elgoibarko ikastetxeetako irakasleen beharrak kontuan hartuta, haietako erakusketa berezia prestatu dute, eta ikasgai eta balio ezberdinak lanterako baliagarriak izango zaizkien jostailuak aurkeztuko dizkiete. Era berean, HHko goi mailako ikasketak egiten ari diren ikasleei jolasa zer den eta jolasaren funtzioak zeintzuk diren azalduko dizkiete hezitzaileek.

Erakusketarekin batera 2019ko jostailuen katalogoa prestatu dute, eta erakusketako bisitariei banatuko diete. Era berean, erakusketan parte hartzen duten herritarren artean hainbat jostailu zozketatuko dituzte. Arduradunek ohartarazi dute 10 urtetik beherako umeak heldu baten zaintzan joan beharko dutela erakusketara.



BISITA ORDUAK

Azaroak 20, eguaztena
(17:00-19:30)

Azaroak 21, eguna
(17:00-19:30)

Azaroak 22, barikua
(17:00-19:30)

Azaroak 23, zapatua
(11:30-14:00)

AUKERAKETA IRIZPIDEAK

Garrantzitsua da jostailuaren aukeraketan arreta jartzea. Jostailu askotarikoak bilatzea komeni da, eta oso kontuan hartu behar dira jostailuak transmititzen dituen balioak. Tentuz zaindu behar da baita ere umeari oparitzen zaizkion jostailu kopurua. Arduradunek hainbat gomendio eman dituzte:

1. Haurren adin eta ezaugarrietara egokitzen diren jostailuak bilatu.
2. Haurren nortasuna garatzen dituztenak izatea.
3. Entretengarriak eta gainerako lagunekin harremanak sustatzen dituztenak izatea.
4. Gizalegezkoak eta solidarioak diren portaerak pizten dituztenak izatea.
5. Jokabide sexista eta belikoak baztertzen dituztenak izatea.
6. Osasunerako eta ingurumenerako kaltegarriak ez izatea.
7. Dibertigarriak izatea eta haurren interesekin bat egiten dutenak.
8. Europako Batasunak homologatuak izatea.
9. Umeekin jolastea ahalbidetzen dutenak izatea. Haurrekin jolastea ezinbestekoa da. Konpartitzea oso garrantzitsua da, eta helduek jolasaren parte hartzeak jolasaren eragin positiboa biderkatzen du.

62 elgoibartarrek eta 14 mendarorrek bukatu dute euripean jokatu den 55. Behobia-Donostia lasterketa

Euriari, haizeari eta kazkabarrari egin behar izan zioten aurre domekan Behobia Donostia probaren 55. ekitaldian parte hartu zuten korrikalariak, baina ez zen oztopo izan marka onak egiteko, iazko denborak ontzea lortu baitzuten gure ordezkarietako askok. 62 elgoibartarrek eta 14 mendarorrek amaitu zuten proba. Berezia izan da aurtengo ekitaldia, probaren mendeurrena ospatu baitute antolatzaileek. Fortuna kirol elkarteak 1919an antolatu zuen estreinakoz, eta Juan Murgertza elgoibartarrak irabazi zuen. Domekan, berriz, Chakib Lachgar (1:01:00) eta Gema Barrachina (1:06:38) izan ziren azkarrenak. 25.479 lagunek lortu zuten 20 kilometroko proba bukatzea (24.917 lagunek bukatu zuten iaz). Gure ordezkariak dagokionez, Igor Torres (01:10:05) eta Pilar Arriola (01:39:56) izan ziren azkarrenak. Arriola, gainera, bere mailako (beterranoak) 46. postuan sailkatu zen. Patinatzaileen proban lehiatu zen Asier Arriola mendarorrek 57 minutu eta 43 segundoan osatu zuen proba, eta sailkapen nagusiko 36. postuan sailkatu zen.

ELGOIBARKO ETA MENDAROKO KORRIKALARIEN SAILKAPENA

ELGOIBAR.....


Postua	Izen-Abizenak	Denbora
89	Igor Torres Castilla	01:10:05
203	Julen Salaberria Anton	01:12:37
315	Inigo Iturbe Ortiz De Zarate	01:14:23
341	Angel Quintana Garcia	01:14:44
496	Unai Muñoz Olazabal	01:16:33
740	Gurutx Quintano Aguirrezabal	01:18:26
929	Martin Dominguez Lopez	01:19:22
1145	Gorka Cebrian Arregui	01:20:34
1377	Ion Irazabal Garciandia	01:21:50
1378	Oier Irazabal Garciandia	01:21:50
1466	Sergio Aguirregomezorta Uriarte	01:22:21
1619	Joseba Juaristi Gurruchaga	01:23:02
1624	Andoni Gabilondo Argarate	01:23:03
1625	Iker Arrillaga Osuna	01:23:04
2740	Aitor Aranzamendi Iriondo	01:26:59
3076	Berex Ortiz Ardanza	01:27:50
4207	Asier Cordon Blazquez	01:30:31
4624	Julen Cid Alcibar	01:31:24
4671	Francisco Javierboo Fernandez	01:31:30
4686	Jon Criado Arriola	01:31:33
4829	Aitor Goikoetxea Gorosabel	01:31:40
4903	Angel Eguren Belaustegi	01:31:59
5044	Hector Garrido Diez	01:32:19
5726	Aitor Ecenarro Irusta	01:33:42
6755	Mikel Elustondo Lejardi	01:35:35
6854	Miguel Angel Montes Crespo	01:35:46
7125	Ander Gabilondo Inchausti	01:36:12
7519	Joseba Sagasta Anton	01:36:56
8572	Zigor Bengoetxea Ansoa	01:38:34
8722	Javier Hernando Albert	01:38:47
9493	Pilar Arriola Diez	01:39:56
9662	Maite Landaburu Azkarreta	01:40:12
9675	Aitor Zubiaurre Lizarralde	01:40:13
10413	Maite Aizpiri Etxeberria	01:41:19
10498	Oier Arriola Leiaristi	01:41:27
11171	Eneko Arrizabalaga Garate	01:42:31
11388	Imanol Carcedo Flores	01:42:52
11443	Oier Ruiz Osoro	01:42:58
11476	Koldo Errasti Irureta	01:43:01
11515	Asier Rodriguez Blanco	01:43:05

ELGOIBAR.....

Postua	Izen-Abizenak	Denbora
11896	Maite Uribe Odria	01:43:35
13177	Unai Usatorre Juaristi	01:45:39
13707	Vanesa Gomez Álvarez	01:46:30
14077	Eduardo Varona Abaitua	01:47:06
14199	Haritz Arribillaga Elizburu	01:47:15
14200	Nora Miguez Perez	01:47:15
14722	Samuel Ruiz De Lorenzo	01:48:00
15413	Amaia Jauregi Barrutia	01:49:01
15416	Miguel Angelcastro Garrues	01:49:01
15419	Ainhoa Aduriz Garzia	01:49:02
15849	Dorleta Fernandez Azpilicueta	01:49:39
15884	Iker Ecenarro Irusta	01:49:42
16717	Davi Drojo Calleja	01:51:07
18192	Sandra Montes Perez	01:53:36
18480	Leire Garate Rodrigo	01:54:06
18592	Oscar Rey Alonso	01:54:15
20521	Alexander Bilbao Aldekoa-Otalora	01:57:47
23428	Iñigo Sabando Loyola	02:05:03
23441	Ariana Nogales Babarro	02:05:06
23830	Roberto Gonzalez Fernandez	02:06:37
26072	Sara Perez Conde	02:20:13
26076	Jon Andercerron Garcia	02:20:14

MENDAROKO.....

Postua	Izen-Abizenak	Denbora
522	Alonso Gomez Viña	01:16:48
953	Josu Motriko Larrañaga	01:19:29
1079	Miguel Angel Urkiza Anakabe	01:20:09
1665	Iñigo De La Iglesia Ugartemendia	01:23:16
3145	Patxi Salegi Martija	01:27:59
4093	David Garcia Fernandez	01:30:13
5082	Iraitz Ferreira Artola	01:32:24
5251	Igor Ezenarro Arriola	01:32:44
10736	Luis Miguel Jimenez Rojo	01:41:51
13232	Joseba Manteca Zabala	01:45:45
16244	Mireia Jauregui Astigarraga	01:50:18
18655	Iñigo Zubiaurre Oruesagasti	01:54:21
19142	Aritz Ruiz De La Torre Acha	01:55:16
19148	Maria Del Mar Cebrian Fuente	01:55:16



Hasi dituzte Olaizaga kiroldegiko igerilekua handitzeko lanak

Aste honetan hasi dituzte Olaizaga kiroldegiko igerilekua handitzeko lanak, eta 2021. urte hasierarako erabiltzeko prest egon beharko luke, lanak egingo dituen Construcciones Amenabar S.A. eraikuntza enpresak hamalau hilabeteko epea izango baitu lanak amaitzeko. Lanotarako aurrekontua 2.881.142,40 (BEZa kanpo) eurokoa da, eta kopuru horretatik 463.000 euro ipiniko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Amenabarrek Jovino Martinez Sierra (Xixon, Espainia, 1961) arkitektuaren proiektua gauzatu du. Aita Agirre kulturgunean birgaitzearen proiektua egin zuen arkitektoak zortzi kale izango dituen igerileku-ontzi berria diseinatu du Olaizaga kiroldegirako. 25 metro luze eta 16,50 metro zabal izango ditu igerileku-ontzi berriak. Zortzi kaleko igerilekua izango da, eta bakoitzak bi metroko zabalera izango du. Gaur egungoak lau kale eta 8,30 metroko zabalera du, eta 25 metro luze ditu. Lotuta eongo dira bi igerilekuak eta batetik bestera joateko aukera izango da. Igerileku berriak leiho handi bat izango du, eraikinaren hego-ekialdeko aurrealdean, eta bertatik sartuko da argi naturala.

Lanek sortutako eraginak


Era berean, aldagelak ere berrituko dituzte. Gaur egun, bi aldagela daude, eta obra berri honen bidez, berritu eta handitu egingo dituzte, beste bi aldagela, aldagela egokituak, komunak eta botikina egin ostean. Honez gain, igerileku-ontzi berriarentzat baliagarriak izango diren instalazioak eraikiko dituzte. Kiroldegiaren inguru ere, kanpoaldea, berritu egingo dute. Igerileku berriaren teilatuan aparkalekua egingo dute, gaur egungo orubean dagoen aparkalekua ordezkatzeko. Lanen lehen fasean itxurak ipini eta eraipen zein zula-laketa lanekin hasiko dira. Lan horien ondoriz, kiroldegia eta Meka ikastetxea artean dagoen aparkalekua ezin izango da erabili, ez eta Telefonicaren eraikinaren ondoan dauden hamar aparkalekuak ere. Gaur egun dauden bi igerilekuak zabalik egongo dira lanek irauten duten bitartean. Azken hilabeteetan, instalazio zaharrek aldagelak berritzen dituztenean eta igerilekuko zaharra berriarekin lotzen dutenean izango du eragina, baina hori bukaerako hilabetean edo hilabeteetan izango dela jakinarazi dute Udaletik. "Ahaletik-duko gara igerilekuko erabiltzaileek ahalik eta eragin txikiena izan dezaten", esan dute.

Karakateko igoera jokatuko dute bihar

11:00etan irtengo dira korrikalariak Kalegoen plazatik, eta Karakatera arteko bidea egin beharko dute, norberak aukeratzen duen bidetik. Interesatuak aurrez eman dezakete izena morkaiko@morkaiko.net helbidera idatzita, edo bihar bertan, 10:00etatik aurrera Kalegoen plazan. Iaz 70 lagunek hartu zuten parte eta Iñigo Lariz eta Mayi Mujika izan ziren azkarrenak. Larizentzako seigarren garaipena izan zen



Ibarluzea nagusitu da Idotorbeko tiraldian, eta lidertzari eutsi dio Loiolak



Euskal Herriko Hiru Txirlo bola jokoko azkenaurreko jardunaldia jokatu zuten zapatuan Idotorbeko bolatokian. 61 bolari lehiatu ziren, eta San Migel taldeko bolariak erakustaldia eman zuten, aurreneko bost postuetan sailkatu baitziren lau taldekide. Angel Ibarluzea gailendu zen, bost txirlo botata. Unai Loiola sailkatu zen bigarren, lau txirlo botata, eta Jose Antonio Nuñez eibartarra sailkatu zen hirugarren postuan, beste lau txirlo botata. San Migel taldeko bi bolari, Iker Izagirre eta Xabier Loiola sailkatu ziren, hurrenez hurren, laugarren eta bosgarren postuetan. Idotorben lortutako puntuei esker, Ibarluzeak ia eskura dauka Gipuzkoako Bolari Onenaren saria. Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketetan botatako txirloak batzen dira sailkapen horretan, eta Ibarluzeak 44 bota ditu guztira. Euskal Herriko Txapelketari dagokionez, Xabier Loiolak jarraitzen du lehen postuan, lehen bi jardunaldiak irabazi eta Idotorbekoan bosgarren egin eta gero, 17 txirloekin. Jose Antonio Nuñez soraluzearra dago bigarren, 11 txirloekin. Azken jardunaldia bihar, azaroak 16, jokatu dute Markina-Xemeinen.

Leire Garate omendu zuen Sanlok arraunean lortutako garaipenengatik

Sanloko jokalaria izana dela eta, Leire Garate Orioko arraunlaria omendu zuen Elgoibako eskubaloitako taldeak, joan zen asteburuan, Olaizaga kiroldegian. Garatek Donostian, Kontxako estropada prestigioetsuan, irabazitako bandera



ekarri zuen omenaldira. Sanloko kideen txaloak eta oroigarriak jaso zituen senior emakumezkoen lau taldeak Usurbilgo taldearen aurka jokatu zuen partida hasi aurretik egin zuten ekitaldian. Gero, Laukoko jokalariekin eta entrenatzaileekin argazkia atera zuen Garatek.

Idotorbeko txirrindulari igoera, domekan



Urtero urriaren 12an jokatzeko den Julian San Juanen Oroimezko San Pedroko igoera atzeratu egin zuten antolatzaileek, trafiko baimenekin eduki zituzten arazoak tarteko. Domeka honetan, azaroaren 17an, jokatu dute igoera. Antolatzaileek parte hartzeraz animatu dituzte txirrinduzaleak. Lagun taldeako arduradunek jakinarazi dute maila bakoitzeko irabazlearentzat egongo direla sariak. Kalegoen plazatik irtengo dira txirrindulariak, 12:00etan, eta lau kilometroko igoeran %9,5eko batez besteko pen-diza gaitzitu beharko dute. Egunean bertan eman daiteke izena Kalegoen plazan, 11:00etatik 12:00etara, 5 euro ordainduta. Iaz, 58 txirrindularik hartu zuten parte, eta Iker Eskibel eta Amaia Urkidi gailendu ziren. Eskibel aretxabaltarrak jarraian lortzen zuen hirugarren garaipena eskuratu zuen, baina ez zuen ondu 2017an ezarri zuen errekorra: 13 minutu eta 17 segundo.

Paleta gomako Gipuzkoako txapelketako finalerdia, gaur, Ikastolako frontoian

Paleta gomako Gipuzkoako lehen mailako finalerdiak jokatzeko ari dira Lagunak taldeko Kepa Arribabalaga eta Gorka Lizarralde. Itzulerako partida Mutrikun 25-21 galdu ostean, finalerako txartela jokoan izango dute gaur, 20:00etatik aurrera



Ikastolako frontoian jokatu duten itzulerako neurketan. Finalera sailkatzeko 21 tanto baino gutxiagoan laga beharko dituzte Danok Bat taldeko Elezgarai eta Garalde. Arribabalaga eta Lizarralde bigarren mailatik lehen mailara igo ziren aurreko denboraldian. Eta, ezin hobeto modatu dira, sailkapen ligaxkan jokatu dituzten sei partidak irabazi eta gero lortu baitzuten finalerdietarako sailkatzea.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Berehala hasteko prest. ☎ 602 850 826

Adinekoak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. ☎ 632 329 213

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Ospitalean ere bai. Titulua eta esperientzia ditut. ☎ 671 989 434

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 612 422 256

Adinekoak zainduko nituzke. Titulua daukat. ☎ 685 724 861 / 943 748 899

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. ☎ 632 229 972

Orduka egingo nuke lan. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ 632 630 483

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile edo gauzez egingo nuke lan. Garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile moduan aritzeko ere prest nago. ☎ 603 346 659

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Ospitalean ere bai. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 602 378 568

Erizain laguntzailea eskaintzen da adinekoak euren etxeetan zaintzeko. Arduratsua, esperientziaduna. ☎ 643 110 299

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. Esperientzia daukat. ☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Gauzez lan egiteko prest. ☎ 641 426 543

Adinekoak edo gaixok zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 617 571 210

Adinekoak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 631 418 130

Adinekoak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 632 061 519

Adinekoak eta umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ 632 153 860

Garbitzaile lanak egingo nituzke, orduka. ☎ 637 102 725

Eskaintzak
Bi asteburitik behin lan egiteko zerbitzaria behar da Mendaroko taberna baterako. ☎ 670 974 969


ETXEBIZITZAK.....
Aukera paregabea! Etxea salgai Eibarren, San Juan kalean. 132m². 4 logela, egongela, sukalde, bi komun. Dena kanpora begira, oso argitsua. 250.000 euro. ☎ 606 591 189

Aukera bikaina! Etxea salgai Zarautzen, hondartzatik gertu. Hiru logela, bi komun, egongela, sukalde, eta komunitateko terraza dutxa eta bista zoragarriekin. ☎ 606 591 189

Etxea salgai San Frantzisko kalean (Maalan bertan). Bi logela, jangela, egongela, komuna eta ganbara. Egoera onean (altzariekin), oso argitsua eta berogailuarekin. 3. solairua. 75m². ☎ 647 209 766


Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 611 160 221

OSPAKIZUNAK.....
1944ko kintoen ospakizuna azaroaren 23an. 13:00etan elkartuko dira San Bartolome parrokia aurrean, eta taldeko argazkia atera ondoren luntxa egingo dute. 14:30ean bazkalduko dute, Sigma jatekxan. 50 euro ordaindu behar dira Laboral Kutxako kontu honetan: ES49 3035 0007 260071138198



Margarita Estarta San Martin

2019eko azaroaren 12an hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Instituto Vasco de Administradores de Empresas



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean aparteko sarrera daukan lokal bat dago. Garai batean, etxe sustatzailearena izan zen, baina orain, jabea du eta jabe horrek ez du gastu bakar bat ordaindu nahi. Jabeak dio komunitateko estatutuetan hala dagoela jasota, ez duela ezer ordaindu behar alegia. Eraikina egin zen garaitik datorren kontua da hau eta jakin nahiko nuke aldatu dezakegun hori.

Ez da lehenengo aldia komunitateko estatutuetan eraikin azpiko lokalen jabeak gastu komunak ordaintzetik salbuesten direna. Elementu komunen mantentze-gastuak eta zerbitzu orokorrak ordaintzea saihesteko etxe-sustatzaileek lokal horiek eurentzako gorde ohi dituztelako gertatzen da hori. Nire ustez, klausula horiek legez kontrakoak dira, legez jabekide guztiak daudelako gastu komunak ordaintzera derrigortuta.

Estatutak aldatzeko, bai eta onartzeko ere, legeak jabekide guztiak ados egotea eskatzen du. Zuen kasuan, baina, zaila ematen du hori lortzea, logikaz, lokal jabe horrek kontra egingo duelako, estatutuak aldatzea bere interesen kontra doalako.

AHOLKUA: Egoera horretan, auzitara jo beharko duzue, baliogabetzat dituzuen klausulen kontra egiteko. Badago beste irtenbide bat, ustez sinpleagoa: estatutuetan jasotako arauak aintzat hartu gabe, batzarrean bertan adostea diru-kontuak, klausula hori baliogabetzat hartuta. Lokal-jabearen kontra etorriko litzateke likidazio hori eta auzitara eramán ahal izango zenuket, dagokiona ordainaraztera behartzeko.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak azaroaren 6rako, eguerdiko 12:00ak baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Ibon**, ostegunean 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Lea**, azaroaren 19an 7 urte potolo egingo dituzulako. Patxo handi bat familiako guztien partez.




Zorionak, eta patxo handi bat **Beñat**, zure lehenengo urtebetetzean. Familiako guztien partez.



Zorionak, **Alaia**, azaroaren 13an urte bat bete zenuelako. Etxeko guztien partez.



Bihar ez aurpegi txarrik jarri gu ikustean! Ondo-ondo pasa, **bikote**, zuen ezkontza egunean. Muxu bat kuadrillakoen partez.



Zorionak, **bikote!** Ondo pasa zuen ezkontza egunean! Guk ere hala egingo dugu!

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

 **Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean**

943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARREN Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

IKASGO ACADEMY **AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK**
2019-2020

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademialelgoibar@gmail.com

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK

667 261 248
(Leire)

 **LAGUNAK**
colchoneria textil hogar

NEGUKO ETXEKO ARROPEN BILDUMA BERRIA!

Franela, koralina eta kotoizko maindireak, Sherpa ohe-estalkiak, umeentzako maindireak...

Etorri eta bisita gaitzazu, kalitatezko enunak topatuko dituzu!

QUALITY eta KOL nordikoetan %25eko deskontua lortuko duzu.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



15 BARIKUA

17:30 Odol ateratzeak, Mendaron. Ikastolan.

18:30 Erakusketa: Oleoak, akrilikoak eta burdinazko eskulturak: Anton Urreisti, Carmen Rivera eta Juan Jesus Villaverderen lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean, hilaren 29ra arte.

23:00 Kontzertua: Serious Bussines. Kultur Etxeko sotoan.

16 ZAPATUA

11:00 Karateko Igoera. Kalegoen plazatik. Antolatzaila: Morkaiko.

11:00 eta 12:30 Bisita gidatua: 'Emakumeak industriari'. Argazki erakusketa jarri dute Erreminta Makinaren Museoa, eta Nerea Alustizak emango ditu azalpenak. Lehenengo bisita euskaraz, eta bigarrena, gaztelaniaz.

11:30 Magosto. Galiza Kultur Etxeak antolatuta, Maalako parkean.

17 DOMEKA

09:30 Mendi-irteera: Gatzaga-Atxorrotz. Morkaikok antolatuta. Irteera Mintxetatik.

11:00 Bigarren eskuko azoka. Mendaroko frontoian.

16:30 Antzerkia: 'Mari Errauskin'. Glu Glu konpainiak taularatuko du Herriko Antzokian.

18 ASTELEHENA

19:00 EHBilduren batzarra, auzoz auzo San Pedro etxeetako bizilagunekin. Lokal munizipalean.

19:00 'Epeletan' Literatur solasaldia. Go-tzon Garate Udal Liburutegian.

19:15 Santa Zeziliako kontzertuak. Musika Eskolan.

19 MARTITZENA

16:30 Hitzaldia: 'Botiken erabilera arduratsua'. Jubilatuen biltokian.

19:00 Santa Zeziliaren omenezko Musika-kalean jaialdia. Mendaroko frontoian. Musika Eskolako abesbatzak, trikitilariak, txistulariak eta euskal dantzako taldeak hartuko dute parte.

19:15 Santa Zeziliako kontzertuak. Musika Eskolan. Segidan, diploma banaketa.

20 EGUAZTENA

17:00 Jostailu erakusketa. Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatuta. Kultur Etxeko sotoan eta Aita Agirren. 20tik 22ra arratsaldez, eta hilaren 23an, 11:30etik 14:00etara.

17:30 Informazio saioa: prozesu eta produktu berrikuntzan ingeniari-tza gradu duala. IMHn.

21 EGUENA

19:00 Musika Eskolako txarangaren eta trikitilarien kalejira. Musika Eskolak antolatuta, Santa Zezilia Eguneko ospakizunen barruan.

21:00 Udazkeneko mendi emanaldia: Jon Galdosek 'Appalachian National Scenic Trail' hitzaldia emango du, gaztelaniaz. Musika eskolako auditoriumean. Antolatzaila: Morkaiko.

22 BARIKUA

8:30 Santa Zezilia Eguna. Ikastolako ikasleen kalejira. Kalegoen Plazatik Ikastolaraino.

21:30 Mendi Film festibaleko filmak, Morkaikoren Udazkeneko Emanaldien barruan. Herriko Antzokian.

21:30 Bideo foruma: 'Atacada: la teoría del dolor'. Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunaren harira. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik emango du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida


RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ERKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisioSmás
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 18
943 740 191 / 667 933 628
www.fisio-mas.com
RPS 112/18

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
15 BARIKUA	16 ZAPATUA	17 DOMEKA	18 ASTELEHENA	19 MARTITZENA	20 EGUAZTENA	21 EGUENA	22 BARIKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola (Lehen, Etxeberria)	Egunez Arriola (Lehen, Etxeberria)	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola (Lehen, Etxeberria)	Iluntzean Arriola (Lehen, Etxeberria)	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego


* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guzian, gauz: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498

Zinea (Herriko Antzokian)



'Día de lluvia en Nueva York'
15 barikua: 21:30
16 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)
17 domeka: 19:00
18 astelehena: 21:30



'Sofía'
(Ongarri zinekluba)
21 eguena: 21:30

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

FUB Fernando Urizar Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ez. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

leku eder
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behe
Elgoibar
943 531 953
669 565 745



1969

Aste honetako erretratu zaharra Maria Victoria Jauregik ekarri du BARRENERA. Azaroaren 9an ateratako argazkia da, orain dela 50 urtekoa, hain zuzen ere. Emakume talde hau ezkon despedida bat ospatzeko batu zen. Gogora ditragun zein diren emakume horiek:

Atzean: Maite Arana, Rosi Osoro, Rosa Garate, Arantxi Korta, Juani Garate, Maite Unzueta, Mari Carmen Zubiaurre, Mertxe Artetxe, Mari Tere Saez, Loren Sanchez. **Erdiko ilaran:** Karmele Garcia, Rosa Mari, Maria Eugenia Martinez, Kontxi, Casimira Etxaniz, Maria Luisa Urkiri, Mari Kontxi Gabilondo, Maria Victoria Jauregi, Kontxi Zabala. **Eserita:** Itziar Fernandez, Bibi Gurrutxaga, Juanita Toral, Inmaculada Trucios, Angelines Abiel, Mertxe Ondarza, Mila Osoro, Mila Astigarra, Maribel Angulo.

Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

- e-postaz bidali: barren@elgoibarkoizarra.eus
- Barreneko bulegora ekarri: **Kalebarren plaza, 2**

JOSTAILU AUKERAKETA:

zer hartu kontuan?



FAMILIENTZAKO JOSTAILU ERAKUSKETA

0-8 URTE
KULTUR ETXEKO
SOTOAN

8-99 URTE
AITA AGIRRE KULTURGUNEKO
ERAKUSKETA GELAN

AZAROAREN 20AN, **EGUAZTENA**, 17:00ETATIK 19:30ERA

AZAROAREN 21EAN, **EGUENA**, 17:00ETATIK 19:30ERA

AZAROAREN 22AN, **BARIKUA**, 17:00ETATIK 19:30ERA

AZAROAREN 23AN, **ZAPATUA**, 11:30ETIK 14:00ETARA



OHARRA

10 URTETIK BEHERAKOEK
HELDU BATEKIN ETORRI BEHARKO DUTE

60 JOSTAILU
BAINO GEHIAGO

JOSTAILUEN
INGURUKO
AZALPENAK

JOSTAILUAK
PROBATZEKO
"JOLAS TXOKOA"

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



ATXUTXIAMAIA

ELGOIBAR
2014
ANIZTASUNA

LAGUNTZAILEAK

► Gremioen gida

ARROZTEGIAK



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



ERREFORMAK



Erosario kalea, 15 beheia - Elgoibar

- Proiektuak eta erreformak
- Sukaldeak
- Gremioen koordinazioa
- Obren zerbitzu integrala

943 744 019
605 713 168

ITURGINTZA



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Uruzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
itenda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
tafler@pagoagasa.com

ELGOIBAR

ELEKTRIZITATEA



Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranzajit@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-0/ 1-P
943 740 547



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Olaso industriagunea, 17 beheia
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

IGELTSERITZA



Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheia - 2. zkia
Elgoibar

610 226 651

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90



San Roke, 10-A, beheia B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielfgoibar.com
www.ongielfgoibar.com



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.
Urazandi kalea 17, beheia
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

IZURRIEN KONTRAKO TRATAMENDUAK



658 710 898

- Aroztegiak
- Erreformak
- Igeltseritza
- Pintura

- Leihoak
- Iturgintza
- Elektrizitatea
- Izurrien kontrako tratamenduak